

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**PRIM 53**

Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1916

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz erdisotoa, bastardea eta bost goi oin dituena (azkena atzeraemana), gehi 1945eko jasodura bat, bosgarren oinarekiko atzeraemana (Prim kalera). Fatxadak, erdisotoan eta bastardean, kuxin formako kareharrizko estaldura du. 1. , 2. eta 3. oinetan, fatxada zeramikaz xafatuta dago eta baoetan hareharrizko azpadurak ditu, eta 4. oinean hareharrizko harlanduzkoa. Bi fatxadetako ardatzean hormigoizko begiratokiak ditu. 1945ean, hainbat bao zabaldu ziren erdisotoan. Jatorrizko proiektua eta jasoduren proiektua bat dator Pedro Egaña 2koarekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harri naturaleko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

- * Erdisotoko baoen proiektzio eta tratamendu bateratua, eraikinaren bastardeko fatxadan dauden baoak erreferentziatzen hartuta horretarako.
- * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.